

NAFARROAKO XAKE FEDERAKUNDEKO II.

XAKE TORNEO ITXIA

(2022ko urtarrilaren 2tik 9ra, Iruñean)

Iruñeko Plazara Gunean jokatu zen. 90 minutuko partidak izan ziren, gehi 30 segundo jokaldiko. 9 txandako itzuli bateko Liga izan zen.

AZKENEKO SAILKAPENA (BEDERATZI TXANDEN ONDOREN)

- 1) Alex Garrido Outon (Espainia) (2.411) – 7 puntu.**
- 2) Andres Luque Saiz (Herrialde Katalanak) (2.260) – 6 puntu.**
- 3) Miguel Muñoz Pantoja (Peru) (2.424) – 5'5 puntu.**
- 4) Julio Javier Alonso Bouza (Kuba) (2.396) – 5 puntu.
- 5) Claudio Javier Minzer (Argentina) (2.435) – 5 puntu.
- 6) Javier Habans Aguerrea (Nafarroa, Euskal Herria) (2.330) – 5 puntu.
- 7) Daniel Pinto Holguin (Bolivia, Mikel Gureakoa) (2.211) – 4 puntu.
- 8) Jose Escartin Lacasa (Espainia) (2.315) – 3 puntu.
- 9) Juan Labiano Hernandez (Nafarroa, Euskal Herria) (2.231) – 2'5 puntu.
- 10) Pablo Urriza Iricibar (Nafarroa, Euskal Herria) (2.312) – 2 puntu.

BI NORMA BANATU ZIREN ETA JAVIER HABANS IZAN ZEN JOKALARI NAFARRIK ONENA

Nafarroako xakelariak sustatzeko torneoaren zuzendaritza: Javier Habans (2.330), Pablo Urriza Iricibar (2.312), Juan Labiano Hernandez (2.231) eta Daniel Pinto Holguin (Mikel Gureako bolibiarra, 2.211). Azken hau Nafarroara iritsi berria da, baina norma lortzeko hainbat estatukoek parte hartzea beharrezkoa denez, oso aproposa torneoarako.

Faborito nagusia Claudio Javier Minzer argentinarra zen (2.435). Hala ere, eloko puntu alde gutxira Miguel Muñoz Pantoja perutarra (2.424), Alex Garrido Outon espainiarra (2.411) eta Julio Javier Alonso Bouza kubatarra (2.396) zeuden. Haietako edonork irabaz zezakeen torneoaren. Egia erran, sailkapena aurreikustea ez zen erraza, elo gehien eta gutxien zuten jokalarien artean 224 puntu besterik ez zeuden. Oso torneo irekia zen. Faborito nagusia bosgarren geratu zen. Horrek erakusten du ze nolako berdintasuna zegoen jokalarien artean.

Alex Garrido Outon espainiarra izan zen irabazlea. Oso torneo ona egin zuen. Lehenengo bost partidak irabazi zituen eta gero errentari eutsi zion. Hau da, azkeneko lau partidetan berdinketa egin zuen. Hala ere, erraz utzi zituen atzean gainerakoak. Bestaldetik, berdinketek dute beste azalpen bat: Azkeneko hiru lehiak elo gehien zuten bi jokalarien aurka eta torneoaren bigarren sailkatuaren kontra izan ziren. Sari potoloa lortu zuen Alex Garridok: Bere hirugarren norma, eta, 2.400 puntu baino gehiago dituenek, automatikoki Nazioarteko Maisu bihurtu da.

Bigarren sailkatua Herrialde Katalanetako Andres Luque Saiz izan zen (zehatz-mehatz, Valentziako Elkargokoa). Ustekabea eman zuen, zortzigarren zerrendaburua baitzen, bere 2.260

punturekin. Honek ere norma atera zuen torneo honetan: Urrats bat Nazioarteko Maisua izateko (oraindik bidea geratzen zaio, hiru norma biltzeaz gain 91 puntu igo behar baititu eloan). Lau partida irabazi zuen eta bat galdu (Javier Habansen aurka, lehenengo txandan). Estropezu horrek torneoaren irabaztetik urrun utzi zuen. Hala ere, bere erreakzioa indartsua izan zen eta azken aurreko partidaren liderra estutzeko aukera izan zuen (berdinketa izan zen emaitza).

Miguel Muñoz Pantoja perutarra bigarren zerrendaburua zen eta postu horretara iritsi ez bazen ere, podiuma osatu zuen. 5'5 puntu atera zituen, lehenengoarengandik puntu eta erdira eta bigarrenarengandik puntu batera. Hiru partida irabazi zituen eta porrot bakarra izan zuen (torneoaren garailearen aurka). Bosgarren txandan izan zen eta gerora ikusi da torneoaren erabaki zuen partida izan zela.

Javier Habans zen nafarren artean elo gehien zuena, nahiz eta gazteena izan. Eta hobekien aritu zena ere izan zen. Gertu izan zuen norma, baina eskarmentu gehiago behar du horretarako. Azken aurreko partidaren, tableroan puntu bat gutxiago edukita, berdinketa eskuan izan zuen eta gehiago nahi izateagatik galdu zuen. Matematikoki norma eskuratzeko aukerak ihes egin zion horren ondorioz. Gainera porrot horrek sailkapen on bat izatea galarazi zuen. Azkenean, 5 puntuz, seigarren postuan geratu zen. Norma lortzeko 6 puntu ziren beharrezkoak. Daniel Pintoren aurka galdu zuen partida hori eta Alex Garrido torneoaren garailearen aurka ere bai. Hiru aldiz irabazi zuen torneo gogor honetan. Eloko 10'40 puntu irabazi zituen.

Daniel Pinto Holguin Mikel Gureako jokalaria zazpigarren sailkatu zen, 4 puntuz. 21'80 puntutan hobetu zuen bere eloa.

Juan Labiano Hernandez bederatzigarren postuan geratu zen, 2'5 puntuz. Hirugarrenetik zortzigarrenera partida guztiak galdu zituen. Porrotek porrot gehiago eragiten dutela jakina da eta zama bihurtu ziren harentzat. Hala ere, azkeneko bi partidetan puntu eta erdia aterata zertxobait txukundu zuen bere jarduna. Eloko 26 puntu galdu zituen; beraz, ez zen oso fin ibili.

Pablo Urrizaren torneoaren ere ez zen izan. Azkena geratu zen eta beste inork baino elo gehiago galdu zuen (44'20 puntu). Beraz, 2.300 puntuko langatik behera bukatu zuen. Torneo hauetako arrisku hori dute. Hori gertatzeagatik ez da pentsatu behar beti hala izan denik. Xakeak hori dauka: Bere gorabeherak ditu.

Claudio Javier Minzer argentinarren eloko 8'40 puntu galdu zituen eta bosgarren postu diskretuan amaitu (lehenengo zerrendaburua zen). Julio Javier Alonso Bouza kubatarren, laugarren geratuta, bere ranking-ari eutsi zion, elo zertxobait galduta. Jose Escartin Lacasa espainiarra galtzaileen artean dago. Eloko 25'40 puntu galduta, zortzigarren geratu zen, 3 puntuz.

FIDE ELOAREN BILAKAERA

- 1) Andres Luque Saiz (Herrialde Katalanak) (2.260): +49'40.**
- 2) Daniel Pinto Holguin (Bolivia, Mikel Gureakoa) (2.211): +21'80.**
- 3) Alex Garrido Outon (Espainia) (2.411): +14'50.**
- 4) Javier Habans Aguerrea (Nafarroa, Euskal Herria) (2.330): +10'40.
- 5) Miguel Muñoz Pantoja (Peru) (2.424): - 2'10.
- 6) Julio Javier Alonso Bouza (Kuba) (2.396): -3'50.
- 7) Claudio Javier Minzer (Argentina) (2.435): -8'40.
- 8) Jose Escartin Lacasa (Espainia) (2.315): -25'40.
- 9) Juan Labiano Hernandez (Nafarroa, Euskal Herria) (2.231): -26.
- 10) Pablo Urriza Iricibar (Nafarroa, Euskal Herria) (2.312): -44'20.

TORNEO HONEN HISTORIA

2017. urtean, I. Torneoan: **Julio Javier Alonso Bouza** (Kuba), garaile; **Jose Manuel Nieves Cabanes** (Herrialde Katalanak), bigarren; **Javier Marchena Hurtado** (Araba, Euskal Herria), hirugarren.

2022. urtean, II. Torneoan: **Alex Garrido Outon** (Espainia), garaile; **Andres Luque Saiz** (Herrialde Katalanak), bigarren; **Miguel Muñoz Pantoja** (Peru), hirugarren.

PALMARESA

- 1) **Julio Javier Alonso Bouza (Kuba) – Titulu bat.**
- 2) **Alex Garrido Outon (Espainia) – Titulu bat.**

2022-01-09.

Iturria: “<https://info64.org/ii-cerrado-de-promocion-fna/standings>” webgunea.